



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

Ordenanzas/Reglamentos Informe

Ordenantzak/Araudiak Txostena

2198/2018

ORG12I0JT

Código de validación/Balidazio kodea

2Q04271H453M521605SP



ORDENANZAS-REGLAMENTOS/ORDENANTZAK-ARAUDIAK

Denominación/Izena	
Reglamento de Organización y Funcionamiento de la Policía Local de Ermua / <i>Ermuko Udaleko Udaltzaingoaren Antolamendu eta Funtzionamenduari buruzko Araudia</i>	
Área promotora/Alor Sustatzailea	Servicio que regula/Erregulatzen duen zerbitzua
Seguridad Ciudadana / <i>Hiritarren Segurtasuna</i>	Policia Local / <i>Udaltzaingoa</i>

Txostena egin duen funtzionarioa

María del Mar Arranz Olmos idazkaria

Funcionario/a que lo emite

María del Mar Arranz Olmos. Secretario/a.

Gaia

Ermuko Udaleko Udaltzaingoaren Antolamendu eta Funtzionamenduari buruzko Araudia onestea.

Asunto

Aprobación de Reglamento de Organización y Funcionamiento de la Policía Local de Ermua.

Aurrekariak

Hiritarren Segurtasunerako Alorreko zuzendariak Ermuko Udaleko Udaltzaingoaren Antolamendu eta Funtzionamendurako araudi-proposamen bat aurkeztu du.

Antecedentes

Se ha presentado por el Director del Área de Seguridad Ciudadana una propuesta de Reglamento de Organización y Funcionamiento de la Policía Local de Ermua

Lege aplikagarriak

TOJL, 4.1 a), 20.1 c), 47.3 a) eta 49, 70.2 artikulua

TATB, 54 a b) artikulua

AJA, 173. artikulua

19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazioa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa

2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki-erakundeei buruzkoa

39/2015 Legearen 133.9 artikulua

128/2018 Errege Dekretuaren 3.3.d) artikulua

Legislación aplicable

LBRL artículos 4,1 a); 20,1 49; 70,2

TRRL artículo 54, a b)

ROF artículo 173

Ley 19/2013, de 9 de diciembre, de transparencia, acceso a la información y buen gobierno

Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi

Ley 39/2015 Art. 133.9

RD 128/2018 Art. 3.3 d)

128/2018 Errege Dekretuaren 3.3.d) artikuluan ezarritakoari jarraituz, honako txostena eman dut:

Cumplimentando lo dispuesto en los artículo 3.3 d) del RD 128/2018 se emite el siguiente informe:

Lehenengoa. Arauzko ahala da Administrazioak araudiak emateko erabiltzen duen ahalmena. Eta araudia da Administrazioak emandako idatzizko arau bat. Alabaina, azpiko araua da, legearen menpekoa eta haren osagarria.

Horiek horrela, adierazi behar dugu apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Toki Araubideari buruzko Oinarriak Arautzen dituenak, 4. Artikuluan, udalerriei –lurralde izaerako herri-administrazio direnez– arautzeko eta euren burua antolatzeko ahala eman diela, euren eskumenen esparruan. Horrela, bada, auzitegiek, Konstituzioak 106. artikuluan agindutakoari jarraituta, arauzko ahal hori kontrolatu beharra dute.

Bigarrena. Antolakuntza ez da garrantzirik gabeko kontu bat arlo juridikoan. Era berean, antolakuntza ez da Zuzenbidearekin zerikusirik ez duen zera bat. Aitzitik, esparru juridikoaren sorburua dugu bera. Antolamendu juridikoa, batez ere, antolakuntza bat da, gizarte-atal antolatu bat.

Erregelamendu honen xedea Ermuko Udaleko Udaltzaingoa arautuko duten jarduketa- eta funtzionamendu-irizpideak ezartzea da, bertan ezarritakoarekin bat etorritz.

Hirugarrena. Ermuko Udaleko Udaltzaingoarekin Antolamendu eta Funtzionamenduari buruzko Araudia onesteko prozedurari dagokionez, gogoan izan behar da administrazio-xedapen orokorra dela eta legeak baino maila txikiagoa duela. Hala ere, tresna arau-emaile nagusia da, era honetara laburbildu dezakegun prozedurari loturik dagoena:

Primero. La potestad reglamentaria es el poder en virtud del cual la administración dicta reglamentos. Y un reglamento es toda norma escrita dictada por la administración. Ahora bien, es una norma inferior, subordinada y complementaria de la ley.

Dicho lo que antecede estamos en disposición de concretar que la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local en su artículo 4, confiere a los municipios, en su calidad de administraciones públicas de carácter territorial y dentro de la esfera de sus competencias, la potestad reglamentaria y de autoorganización, correspondiendo a los Tribunales por mandato constitucional artículo 106 CE- el control de esta potestad reglamentaria.

Segundo. La organización no es algo jurídicamente irrelevante. Antes bien, la organización no es algo ajeno al Derecho, sino, justamente el origen mismo de lo jurídico. El ordenamiento jurídico es, ante todo, una organización, un cuerpo social organizado.

El presente Reglamento tiene por objeto establecer los criterios de actuación y funcionamiento por los que se regirá el Cuerpo de la Policía Local del Ayuntamiento de Ermua, de conformidad con lo que establece

Tercero. En cuanto al procedimiento de aprobación Reglamento de Organización y Funcionamiento de la Policía Local de Ermua, es preciso tener presente que es una disposición administrativa de carácter general y de rango inferior a la ley, pero instrumento normativo solemne sujeto a un procedimiento formal que podemos sintetizar así:



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

Ordenanzas/Reglamentos Informe

Ordenantzak/Araudiak Txostena

2198/2018

ORG12I0JT

Código de validación/Balidazio kodea
2Q04271H453M521605SP



39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133.1 artikuluan ezartzen da legearen edo erregelamenduaren proiektua edo aurreproiektua prestatu baino lehen, kontsulta publikoa bideratuko dela administrazio eskudunaren webgunearen bitartez.

133 artikulua beraren 4. atalean jasotzen denez, artikulua honetan aurreikusitako kontsultaren, entzunaldiaren eta informazio publikoaren izapideak egin gabe utzi daitezke toki-administrazioaren edo zein mendeko edo berari lotutako antolakundeen aurrekontuei edo antolaketa buruzko arauak direnean.

Udaltzaingoaren antolamenduari buruzko araudi bat denez, ez da berori prestatu aurretik izapide hori egingo.

Toki Araubideari buruzko Oinarriak Arazten dituen Legearen 49 eta 70,2. artikuluetan ezarritakoari lotuz bideratu beharko da Ermuko Udaleko Udaltzaingoaren Antolamendu eta Funtzionamenduari buruzko Araudia.

Ondorioz, Udaltzaizaren Osoko Bilkurak prozedura onartu beharko du, Toki Araubideari buruzko Oinarriak Arazten dituen Legearen 47,1. artikulua ezarritako quoruma betez, hau da, korporazio-kideen legezko kopuruaren gehiengo soilaren aldeko botoaz.

Hasierako onarpenaren erabakian honakoa agerrarazi ahal izango da: erreklamaziorik egon ezean, Ermuko Udaleko Udaltzaingoaren Antolamendu eta Funtzionamenduari buruzko Araudia behin

Primero: El artículo 133.1 de Ley 39/2015 de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas establece que con carácter previo a la elaboración de proyectos de ley o de reglamento, se sustanciara una consulta pública, a través de la web de la Administración competente.

4.- Podrá prescindirse de los trámites de consulta, audiencia e información públicas previstos en este artículo en el caso de normas presupuestarias u organizativas de la Administración Local o de las organizaciones dependientes o vinculadas a esta.

Por tratarse de un Reglamento Organizativo de la Policía Local se omite este trámite previo a la elaboración del mismo.

Reglamento de Organización y Funcionamiento de la Policía Local de Ermua deberá tramitarse con arreglo a lo previsto en los artículos 49 y 70, 2 de la Ley reguladora de las Bases de Régimen Local.

En consecuencia, el procedimiento precisa la aprobación por el Pleno de la Corporación, con el quórum que establece el artículo 47.1 de la Ley reguladora de las Bases de Régimen Local, esto es, con el voto favorable de la mayoría simple del número legal de miembros de la Corporación.

En este acuerdo de aprobación inicial se puede hacer constar que si no hay reclamaciones, Reglamento de Organización y Funcionamiento de la Policía Local de Ermua se entenderá definitivamente

betiko onartutzat hartuko da (eta hori Udalbatzaren Osoko Bilkurak beren-beregiko erabaki berria eman barik).

Hasierako onarpenaren ostean, jendaurreko informazio-aldia bete behar da eta interesdunei entzunaldia eman behar zaie, hogeita hamar asteguneko epean, erreklamazioak, alegazioak edo iradokizunak egin ditzaten.

Izapide hori betetzeko, iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Korporazioko iragarki-taulan argitaratu behar da.

Gardentasunari, informazioa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 7. artikuluan eta Euskadko Toki-erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 53 artikuluan ezarritakoari jarraituz, hasierako izaeraz onetsi den araudi edo ordenantzaren gaia eta edukia jendeari ezagutzera emateko eta horien inguruan alegazioak edo iradokizunak aurkezteko aukera emateko, udal webguneko gardentasun-atarian ere argitaratuko da araudi edo ordenantzaren dokumentua.

Aurreko izapidearen ostean, eta Idazkariak horri buruzko txostena eman eta gero, Udalbatzaren Osoko Bilkurak epearen barruan aurkeztutako erreklamazioak, alegazioak edo iradokizunak kontuan hartuta, bidezko erabakia hartuko du, behin betikotasunez onestea erabakiz.

Amaitzeko, hasierako onarpenaren iragarkia argitaratu eta gero, Ermuko Udaleko Udaltzaingoparen Antolamendu eta Funtzionamenduari buruzko Araudiaren testu osoa Bizkaiko Aldizkari Ofizialean

aprobado/a, sin necesidad de nuevo y expreso pronunciamiento del Pleno de la Corporación.

Tras la anterior aprobación inicial procede el trámite de información pública y audiencia a las personas interesadas por plazo mínimo de treinta días hábiles para presentación de reclamaciones, alegaciones o sugerencias.

En cumplimiento de este trámite procede la publicación de anuncio en el Boletín Oficial de Bizkaia y en el Tablón de anuncios de la Corporación.

Y, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 7 de la Ley 19/2013, de 9 de diciembre, de transparencia, acceso a la información y buen gobierno, y en el artículo 53 de la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi, con el objeto de facilitar a la ciudadanía el conocimiento de la materia y contenido sobre la que verse el reglamento u ordenanza que se ha aprobado con carácter inicial, y fomentar la posibilidad de que se puedan formular alegaciones o sugerencias al respecto, también se publicará el documento del reglamento u ordenanza en el portal de transparencia de la web municipal.

Tras el anterior trámite, previo informe de la Secretaría al respecto, el Pleno de la Corporación resolverá lo procedente en orden a las alegaciones, sugerencias y reclamaciones que se hayan interpuesto dentro del plazo, acordando la aprobación definitiva.

Finalmente, deberá publicarse el texto íntegro del Reglamento de Organización y Funcionamiento de la Policía Local de Ermua en el Boletín Oficial de Bizkaia, que entrará en vigor, tras la anterior



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

Ordenanzas/Reglamentos Informe

Ordenantzak/Araudiak Txostena

2198/2018

ORG1210JT

Código de validación/Balidazio kodea
2Q04271H453M521605SP



argitaratuko da eta berori indarrean jarriko da, iragarkia argitaratu eta hamabost asteguneko epea amaitutakoan, behin betiko onarpenaren erabakian kontrakorik xedatu ezean.

Oinarrizko azalpen honen ondorioz esan daiteke, Ermuko Udaleko Udaltzaingoaren Antolamendu eta Funtzionamenduari buruzko araudiaren proiektua aztertu eta gero, berori indarrean dagoen legeriari egokitzen zaiola. Horrenbestez, zuzena da aldeko txosten hau ematea, zeina Udalbatzarraren iritzipean jartzen den:

"1. Korporazioak badu bere burua antolatzeke eta arauak emateko ahalmena; hori dela eta, Ermuko Udaleko Udaltzaingoaren Antolamendua eta Funtzionamendua arautu ditzake, beraz, hasierako izaeraz onartuko da.

2. Onartutako espedientearen jendaurreko informazio-aldian jarriko da, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Korporazioko iragarki-taulan iragarkia argitaratuz, hogeita hamar astegunetz, iragarkia Bizkaiko Aldizkari ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita. Horrela, interesdunek aztertu ahal izango dute, eta egoki begitantzen zaizkien alegazioak, erreklamazioak edo iradokizunak egin ahal izango dituzte.

3. Gardentasunari, informazioa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 7. artikuluan eta Euskadiko Toki-erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 53 artikuluan ezarritakoari jarraituz, hasierako izaeraz onetsitako Ermuko Udaleko Udaltzaingoaren Antolamendu eta Funtzionamenduari buruzko Araudiaren gaia eta edukia jendeari ezagutzera emateko eta

publicación, transcurrido el plazo de quince días hábiles desde aquella publicación, salvo que otra cosa se dispusiera en el acuerdo de aprobación definitiva, a este respecto.

A la vista de esta elemental exposición cabe concluir que, examinado el proyecto de Reglamento de Organización y Funcionamiento de la Policía Local de Ermua, éste se adecua a la normativa vigente, se informa lo siguiente respecto a este Reglamento que se somete a aprobación:

"1º. Atendido que la Corporación tiene potestad autoorganizatoria y reglamentaria para regular la Organización y Funcionamiento de la Policía Local de Ermua, se aprueba con carácter inicial esta materia.

2º. Someter a información pública el expediente aprobado mediante la publicación de anuncios en el Boletín Oficial de Bizkaia y en el tablón de anuncios de la Corporación, por plazo de treinta días hábiles contados a partir del siguiente al de la publicación del anuncio en el Boletín Oficial de Bizkaia, a efectos de que se pueda examinar y formular por las personas interesadas las alegaciones, reclamaciones o sugerencias que estimen convenientes.

3º. De conformidad con lo dispuesto en el artículo 7 de la Ley 19/2013, de 9 de diciembre, de transparencia, acceso a la información y buen gobierno, y en el artículo 53 de la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi, con el objeto de facilitar a la ciudadanía el conocimiento de la materia y contenido del Reglamento de Organización y Funcionamiento de la Policía Local de

horien inguruan alegazioak edo iradokizunak aurkezteko aukera emateko, araudi edo ordenantzaren zirriborroa udal webguneko gardentasun-atarian ere argitaratuko da.

4. Aipatutako epean alegazio, erreklamazio edo iradokizunik aurkeztuko ez balitz, Ermuko Udaleko Udaltzaingoaren Antolamendu eta Funtzionamenduari buruzko Araudia behin betiko onetsitzat hartuko litzateke. Bestela holakorik izango balitz, Udalbatzaren Osoko Bilkurak erabaki beharko luke horiei buruz”.

Honako txostena zuzenbidez hobea izan litekeen besteren baten kalterik gabe eman da.

Ermua que se ha aprobado con carácter inicial, y fomentar la posibilidad de que se puedan formular alegaciones o sugerencias al respecto, también se publicará el borrador del reglamento u ordenanza en el portal de transparencia de la web municipal.

4º. El Reglamento de Organización y Funcionamiento de la Policía Local de Ermua se considerará definitivamente aprobado/a si durante el citado plazo no se presentaren reclamaciones, alegaciones o sugerencias, que si se formularen serán resueltas por el Pleno de la Corporación.

Este informe se emite sin perjuicio de otro mejor en derecho.